

han-hemen

Kartzela arriskua du Margaret Thatcherren eskultura bati burua moztu zion ekoizleak

Iazko udan, Paul Kelleher antzerki ekoizleak burua moztu zion Margaret Thatcherren eskultura bati. Aste honetan epaitu dute eta, ziurrenik, espetxe zigorra ezarriko diote; behin betiko epaia otsailan emango dute. Kelleherrek bere ekintza zurrutu du, eskultura hura «nazio-arteko sistema politikoa- ren gaixotasunen erakusgarri» dela esanez. Estatuari burua moztuta, polizia zain gelditu zen gizona, Guildhall arte galerian, eta honako hau esan zien: «Uste dut obra hori askoz hobeto dagoela orain».

Internetetik musika eskuratzeko bigarren eguna antolatu dute

Europako musika ekoizleek legalki Internetetik musika eskuratzeko bigarren eguna antolatu dute martxoaren 21erako. Oraingoz, kanpaina Frantzia, Alemanian, Espainian, Italian, Erresuma Batuan eta Herbehereetan egingo dute. Eta helburua Interneteko pirateriari aurre egitea da.

Indonesiako lehendakariak jai hartu du urtebetetzea ospatzeko

Megawati Sukarnoputri Indonesiako lehendakariak jai hartu zuen atzo, bere 56. urtebetetzea familiarekin ospatu ahal izateko. Megawati soilik argazki saio baterako joan zen presidentetza jauregi- ra, senarrarekin eta seme- alabekin. Azkeneko egu-



JUAN HERRERO / EFE

Maria Cristinaren estatuari burua moztu diote, laugarrenez

Burua moztu diote Donostiako Amarako parkean dagoen Maria Cristina erreginaren estatuari. Burua moztu dioten laugarren aldia da, eta oraingoan Urumea ibaian agertu da.



GEORGE FREY / EPA

Jessica Lange eta Mickey Rourke Sundance jaialdian

Masked and anonymous filmaren aurkezpenean, batera agertu ziren Jessica Lange eta Mickey Rourke aktoreak Sundance zinemaldian. Rourke aspaldian ez da agertu jendaurrean.



RICHARD LEWIS / AP

18.000 eta 27.000 euro bitarteko erloju zahar baten enkantea Londresen

Bonhams etxeak balio handiko urrezko erloju bat jarri zuen enkantean herenegun Londresen. John George Richardsonena zen erlojuak; *Titanic* ontzia hondoratu zen gauean *RMS Carpathia* ontzian zihoan Richardson eta bizirik atera zirenei laguntzen aritu zen. Erlojuaren prezioa 18.000-27.000 euro bitartekoa da.

netan, oinarritzko zerbitzuen garestitzeagatik, protesta ugari egin dituzte jauregiaren aurrean, baina atzo aldeko herritarren bisita eta zorionak jaso zituen Sukarnoren alabak. 2004ko hauteskundeetara aurkeztuko dela iragarri berri du Sukarnoputrik.

Antonia San Juan aktoreak film bat zuzendu nahi du

V.O. film laburra du esterinakoa Antonia San Juan aktoreak zuzendari lanetan eta arrakasta dezente lortu du. Orain, Luis Miguel Seguirekin batera idatzitako gidoi batekin

film luze bat zuzendu nahi duela adierazi du aktoreak. «Nahiko une zaila da Espainiako zinemarentzat, baina dena konponduko da eta krisialdiak emaitza onak ekarriko ditu beharbada», esan du San Juanek Granadan, *Otras mujeres* antzezlanaren aurkezpenean. Idatzi duen gidoiari buruz, iragarri du komunikazio ezari buruzkoa dela; «Hizkuntza bera hitz egiten duten hainbat pertsona elkar ulertzeko gai ez direla erakusten du». Era berean, gizarte errealitate ezberdinetako pertsonen ados jarri eta euren bizitza aldatzeko borondatea dutela dio.

hilberriak

ESKELAK

Gaueko 9ak arte hartzen dira



(0034) 943 300 222

publi@egunkaria.com

ESKERTZA

Orain egun gutxi hil zen

Millan Urruzola Aranzabe

Jauna

– Goian bego –

Bere familiakoek bihotz- bihotzez eskertzen dizuete bere hiletara etorri zineten guztioi eta samin agurra bidali zenutenei.

Mila esker.